

piztu gabeko zigarroak



Xabier López Askasibar



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

XABIER LÓPEZ ASKAZIBAR

piztu gabeko zigarroak

hitzaurrea

piztu gabeko zigarroak

hitzaurrea

Dramaturgia estilo-ariketa moduan sortu zen *Piztu gabeko zigarroak*, hurrengo premisa hauek jarraituz: bi bakarrizketen bitartez istorio bakarra zeharkatzea, autore garaikide ezagun baten estiloa neureganatzea eta Ediporen tragedia famatua beste modu batean kontatzea. Beti izan baita aberatsa trabak jartzea idazketari, sorkuntzan bide berriak bilatzeko.

Testu arrotza eta nortasun handikoa sortu zen nahasketa horretatik, hizkuntza poetikoz jantzia, baina beti eszenara bideratua; azken finean, hori da idazten dakidan gauza bakarra eta hori da beti nire testuen azkeneko helburua. Arroztasun eta poetikotasun horregatik, agian, lortu zuen obrak Kafe Bar Bilbao teatro laburreko saria 2010. urtean.

Booktegi webgunerako prestatutako bigarren edizio honetan, aldaketa gutxi batzuk egin dira: originalaren testu gehiena errespetatzen den arren, bi bakarrizketak nahasi egiten dira eszenaratzea errazteko asmoz. Dena den, bi edizioetan testua mapa bat besterik ez da, zuzendari eta aktore bakoitzak bere sorkuntza bide propioa egin dezan.

piztu gabeko zigarroak

PERTSONAIAK:

EDIPO

YOCASTA

Beltzez Ediporen testua

Gorritz Yocastaren testua

Urdinez bien testua

EDIPO: Kaleko farola dardartien itzalpean ikusi zaitut eta neure buruari esan diot, azkenean aurkitu dut, bila nenbilen emakumea. Hainbestetan amets egin dudana. Behar nuena. Zugana hurbildu egin naiz, txakur zaragartsua bezala jabearen arrastoan. Baina ez didazu begiratu. Gona beltzaren urratuarekin jolasten ari zara zeure gogoetetan galduta. Arratoiak ezkututzen diren bazter ilun horretan ikusi zaitut, eta neure buruari esan diot, bera da, irtenbide bakarra; baina ez didazu begiratu, ez duzu nire arnas urduria zure garondoan sumatu. Kaixo, esan dizut eta, **ba al duzu dirurik**, galdetu didazu egunerokotasunaren boz aspertuaz. Honaino etorri naiz gauaren azkenean, eskale zarpailtsuak nahiz heroinomano zimelduak ozta-ozta saihestuz. Basatia da kalea. Kotxeak ez dira semaforo gorrietan gelditzen, tiro hotsak entzuten dira urrutian... korrika egin behar izan dut, hiltzaileez ihesi, izerdi-patsetan eta arnasestuka bukatu arte... hori guztia egin dut, eta ez dakizu nor naizen. Ez dakizu nor naizen... denbora honetan guztian zure bila ibili den gizonezkoa naiz, oihukatu nahi nizuke, baina ez dakizu ezer horretaz. Ez zenuke sekula ulertuko.

YOCASTA: Urrutian ikusi zaitut, kutsaduraren lanbro zikina gainditu nahian, eta neure buruari esan diot, hor dago. Azkenean. Aurkitu dut. Bilatzen ari nintzen gizona. Ezezagun batzuek seinalerik gabeko bidegurutzean senarra erail zutenetik, bakardadean itxaroten ari nintzen gizona. Behar nuena. Zaharra naizen arren. Hotz handia egiten duen

arren. Otsaila den arren eta hotz egin arren. Zaharra eta irrigarria izan arren kale gris hauetatik bueltaka gizon baten bila. Txakur abandonatua bezala jabearen arrastoan. Hori guztia sentitu izanagatik ere. Aurkitu zaitut.

EDIPO: Gonarekin jolasteari utzi gabe burua altxatu duzunean, **ba al duzu dirurik**, errepikatu duzu, lipar batez ezpain gordinetan arnasa hartzeko zirrikitu bat agerian utziz. **Ba al duzu dirurik**, galdetu didazu bat-batean eta ez dakit zer erantzun. Gaztea zara. Edo ematen duzu. Ni baino zaharragoa izan arren. **Ba al duzu dirurik**, galdetu didazu eta, **ze gaztea**, esaldiak ihes egin dizu hasperen batean. Bai, dirua daukat, bota dut indarrez, gizon zailduaren ahotsa imitatu nahian. Norbaiten oroitzapena dakarkizu burura nire adats ilehoriak, orduan askatu duzu artilezko gona; bihozkada baten hozkirriak gorputz osoa zeharkatutakoan utzi diozu arroparekin jolasteari, une horretan askatu duzu gona eta ez lehenago.

YOCASTA: Arimaren adabakiz josia daukat doluzko jantzia. Urratuak galtzerdietan. Eta pixagura naiz. Mamutzarra ematen dut andrearen soinekoan. Baina otsaila izan arren eta hotzak akabatzen egon arren, kaixo, esan didazu. Ikusi zaitut, arrotzen aurpegiaren artean, eta neure buruari esan diot, bera da, amets egin dudana gizona. Gazteegia agian. Zaramaren erdian aingeru bat zara, esateko gogo dut, artilezko jantzi beltza apurtu zaidan honetan, galtzerdiak urratu zaizkidan egunean

bertan, bizitzan aurrera egiteko zalantzek bihotzean kabi egonkorra egin duten egunean. Material noblea zara plastifikatutako munduan. Caravaggioren mutil ederra. Baina, ba al duzu dirurik, galdetu dizut. Aldatu zaizu masailen kolorea, lotsagorrituta. Une horretan, ekiditen saiatu naizen arren, gazteegia, pentsamenduak ihes egin dit, hortzen kontra supituki eztanda eginez. Egoera hutsaletan sortzen dira hitz hutsalak. Hau, ordea, ez da edozein egoera. Behin bakarrik gertatzen da hau bizitzan.

EDIPO: Urrutian ikusi zaitut polizien sirenen oihartzunen artean eta badakit nor zaren, begiratu didazu eta norbait gogorarazten dizut. **Norbait gogorarazten didazu.** Besterik ez. Horregatik, nora goaz, galdetu dizut. Nora goaz, esan dizut; hemen egon nahi dut zuri begira, mugitu gabe, aitortu beharrean. Nora goaz, galdetu dizut emozioaren urduritasunaz, **zeu zara itxaroten ari nintzen gizona,** erantzungo didazulako esperoan. Baina, nora goaz, esan dizut eta, **hor gela bat dut,** laburra eman didazu aditzera.

Ikusi zaitut eta neure buruari esan diot, bera da; une horretan bertan, kafe batera gonbida zaitzakedala bururatu zait. Beroa. Kanean zain egoteko hotza egiten baitu otsailean. Kafe bat ondoko taberna zaharrean. Neguan zigarroen ke artean adiskideekin edaten diren horietakoak. Inoiz ospetsu izan ziren idazle ahaztuak absentaz mozkortzen ziren zulo dekadente

horietako batean. Arima abandonatuen azken gotorlekua. Zu eta biok. Bakarrik. Inor gehiago ez inguruan.

YOCASTA: Begietara begiratu didazu eta ezaguna zaitut. Ez dut aingerurik inoiz ikusi, aingeruak ez dira hona jaisten zaborrarekin bat egitera. Ametsak inoiz betetzen ez diren legez. Hala ere, itxaroten ari nintzen gizonezkoa zara, gazteegia agian. Badakit aireratu nahi duzula, zurekin eraman leku argitsuago batera, norabait urrunera, zorientasuna eta azukrea nahasten diren herrialde arrotzera; baina alkandora zaharrak eta gorbata berriak ez dizute uzten. Alkandora zaharra eta gorbata berria daramazulako. Auzo zikin honetan. Trafikanteek ez ezik, inork ez du horrelakorik janzten hemen.

Gazteegia zara horren heldua izateko, horregatik ez zara ausartzen ni handik eramaten. Ba al duzu dirurik, galdetu dizut gorputzean hozkirri batez astindua, baina ez dakizu zer erantzun. Galdera ez delako hori. Nire aurpegia ezaguna egiten zaizu. Urrutian ikusi eta badakit nor zaren, itxaroten ari nintzen gizona; zuk, ordea, ikusi nauzu eta bakarrik ezaguna duzu aurpegia. Ez naiz espero zenuen emakumea. Zaharregia, agian. Zaharregia.

EDIPO: Baina itxita dago taberna. Eta ez dugu elkarrekin zigarrorik erreko. Inoiz piztu ez diren zigarro ahaztuak. Inoiz piztuko ez diren zigarroak.

BIAK.- Hor geldirik, bizitzak eskainiko ez dien aukera berri baten zain. Norbaiten poltsikoan galdutako zigarro koitadu horiek bezalakoak izango gara gu.

Nora goaz, galdetu dizut, horrelako erantzun amultsu baten zain: **zeu zara** itxaroten ari nintzen gizona, goazen kafe bat hartzera ondoko tabernara, orain otsailean, hemen, kalean, hotza egiten baitu. Baina, **gela bat daukat hor**, adierazi didazu xaloki. Bihotza idortu zait ametsen ilusio faltsuaz. Ez dago esperantzarik. Ez dago inolako esperantzarik.

Horregatik, **gela bat daukat hor, esan dut. Gela bat daukat hor, azkar batean jakinarazi dizut, neu naiz, zure bila etorri naiz, aitortuko duzula sinisten. Baina ez da hori gertatuko. Ipuinetako printze urdinak ez direlako existitzen, gezurra delako txikitan esaten ziguten guztia. Gezurra bizitzan kontatu diguten guztia, hitz emandako guztia. Kolpea latzagoa izan zedin asmatu zuten dena. Baietz esan diozu logelaren eskaintzari, ados, goibel batez.**

Ados, esan dut eta igo gara. Logelara. **Logelara.** Abesti bat kantatu dut, eskailerak igo bitartean bat-batean gogoratu dudan sehaska kanta. Nota berri bakoitza astiro miazkatuz bete dut ahoa. Eskaileren erdian gelditu zara instant batez, urduri edo. Begirada galduaz begietara so eginez, ea benetan dirurik dudan berriz galdetu didazu.

Eskaileretan kantatu duzu. Nire aingeruak abesti bat kantatu du, aleluiaren ahots gozoaz. Giharrak izoztu dizkit susmo txar batek. Eskaileren erdian isilik geratu naiz abestiaren ezintasunean mugitu ezinik. Ea benetan dirurik duzun galdetu dizut. Baina galdera ez da hori, non ikasi duzu abestia, da galdera. Ea benetan dirurik duzun galdetu dizut. Billete mordoa atera duzu jeans gastatuetatik.

Gora jarraitu dut solairua zein den ezagutu gabe; horrek ez du axola, ezinbestean urkamendira garamatzatelako pisu guztiek. Erortzear dagoen eraikin honen muga garaieneraino igo nahi nuke, eskailerak, ordea, ez dira bukatzen, amaiezinak dira. Ez, ba, ez da egia! Une bateko burutazio txoroa izan da, ez naiz lekutik mugitu, ez dut urrats bat bera ere eman. Eta ez diot galderari erantzun. Galdera ez baita hori. **Non ikasi duzu abestia**, da galdera. Baina ea benetan dirurik dudan esan didazu. Ez dut erantzun, baina kaka zaharra pentsatu dut, eta gastatutako jeans-aren atzeko patrikatik, billete batzuk erakutsi dizkizut bola batean zimurtuta. Zimurtutako billeteak erakutsi dizkizut eta, ez dakit zergatik, burua makurtu eta aurrera jarraitu duzu. Etsita, ekidin ezin duzun egoera onartu izan bazenu bezala.

Etorri nirekin tabernara, esatekotan egon naiz, badakidala nor zaren, ibiltzean aireratzeko duten moduarengatik ezagutzen direla aingeruak, denbora pausatzeko duten dohainarengatik, egunsenti berriak sortzeko

du ten gaitasunarengatik. Ikusi zaitut eta kafe batera gonbidatu ahal zaitudala pentsatu dut. Beroa. Otsailean kalean hotza egiten baitu. Kafe bat ondoko tabernan. Beste garai bateko zinema izarrak zerbitzariarekin adiskidetzen saiatzen diren zulo horietako batean. Bihotzetan sabaietan bezainbeste zabaltzen direnean amaraunak. Eta nire poltsako zigarro eskasak konpartituko ditugu. Zoriontsu izateko, azkenean. Baina ez dizut sikiera hori esan, kafe bat hartzera gonbidatzen zaitut jantzia hautsi zaidalako, galtzerdietan urratu bat dudalako, pixagura naizelako eta norbaiten sorbaldan negar egiteko gogoak ditudalako. Baina taberna itxita dago. Goazen gora, esan dizut etsita. Logelara. Logelara. Eta ez didazu erantzun pelikula erromantikoen amaieran gertatzen den bezala, zeu zara, itxaroten ari nintzen emakumea; THE END erraldoi bat gure aurpegietara hurbilduz doalarik, musukatzen ari garen bitartean.

Logelara ailegatu gara. Logelara. Eta giltza madarikatatuak ez du atea ireki. Ez du lehenengora ireki, baina bai bigarrenera. Loditzen da atea hezetasunarekin, esan duzu irribarre tristeaz. Bizirik jarraitzen du egurrak, nik ez bezala. Bai, horrela izan ohi da, onartu dut herabeti.

Eta gelako atea ez da ireki. Zerbaitek esaten dit ate hori ez dudala irekitzerik nahi. Ate batzuk ez liratekeela ireki behar sekula. Baina bigarrenean ireki da. Loditzen da atea hezetasunarekin, neure burua zuritu dut nahigabe, irribarre tristeaz. Arrazoia eman eta begiratu dizut,

ez dut sartu nahi, esaten dute zeure begiek. Baina gorputzak ez du sekula begiek erregutzen dutena egiten. Independentek dira gorputza eta arima.

Gela huts bat, ohe bat, paretetan kanfor usaineko paper loreduna. Bitxilore laranja eta marroi erraldoiak. Gurutzea zelatan ohe gainean. Urtetan ikasitako mugimendu lirainak erabiliz etzan zara eta, **zer egitea nahi duzu**, galdetu didazu, zeure begiradak galduta jarraitu badu ere. Beste garai bateko dama dirudizu: larruazal gardena, lepoan kameua arnasa estutzen, eta gizonak jaso ditzaten eskularruak erortzen utziz. Kanean ikusi zaitut eta neure buruari esan diot, azkenean bera da, baina orain, **zer egitea nahi duzu**, jakin nahi zenuke. Ezer ez, ahoskatu dut zalantzati. Begiratu didazu eta, **gazteegia**, hitza astiro murtzikatu duzu. Kostata edo. Zeure burua zigortuz.

Gorbatari tinko heldu zatzaizkio. Gorbata baitaramat. Neure buruari esan diodalako, berak ez zaitu inoiz ikusi, dagokizun emakumea topatzen duzunean, gizon bat zarela antzeman behar du berehala: ez du zure musugorriak engainatu behar, ez dute lanari lotu gabeko zure esku leunek izutu behar, ezin da tolesdurarik gabeko zure begirada gardenean galdu. Gizon heldua zarela ulertu behar du. Horregatik jantzi dut gorbata. Armairuan estreinatu gabe zegoen setazko gorbata marraduna. Baina, **gazteegia**, hitza ebaki duzu ahapeka. Aspaldi sikatutako ezpain umelekin

musukatu nauzu. Helduagoa emateko jantzi dut gorbata, baina, **gazteegia**, esan duzu eta musukatu nauzu. Urteen trebetasunez arropa erantzi eta titi perfektuak dituzu. Ez handiegiak ez txikiegiak. Berak, itxaroten ari nintzen emakumeak, titi perfektuak ditu. Perfektua da. Gizon bat naizela ikus zenezan jantzi dut gorbata. Antzeman duzu? Gizon bat naiz. Ulertzen al duzu? Aspaldian utzi nion lau hankatan ibiltzeari. Eskuekin gizasemeak akabatu ditut bidegurutzeetan. Izurriteei aurre egiteko ahalmena daukat. Enigma guztien esanahia ulertzeko sortu ninduten. Miretsia izateko. Ulertzen duzu? Ulertzen duzu? Gizona naiz... Alferrik, dena alferrik da. Beranduegi jaio nintzen.

Badakit aingeruekin ezin dela larrutan egin, bekatu nazkagarria izango litzatekeela, aingeruek ez dutela sexurik. Behintzat, hala irakatsi ziguten eskolan. Baina gizonezkoa zara. Gizon bat bere alkandora zaharra eta bere gorbata berriarekin.

Txikia sentitzen naiz biluzik, supituki lotsak irentsita. Horregatik utzi dut gorbata jantzita, biluztutako nerabearen larruazal bigunean kulunkatzen. Eta larrutan egin dugu. Klean ikusi zaitudanean **kafe batera gonbidatuko zintudala pentsatu dut, otsailean hotza egiten duelako, eta zu zarelako. Azkenean.** Bilatzen ari nintzen emakumea. Tabernetako kristalak lausotzen dituen kafe beroa, azukrerik gabea, bizitza bezain mingotsa. Zigarro beltz bat partekatzen dugun heinean. Zaratarik gabeko barre algarak eginez.

Zoriontsu azkenean... zoriontsu. Larrutan ari gara orain, gorbata jantzita. **Eta neure buruari, zu zara, esan diot. Eta biluztu zara, eta larrutan egin dugu.** Zure barruan hustu naiz, ia nahigabe. **Nire txikia,** esan didazu, baina ez dut gustuko hori, gizon bat naizelako, nagusia, kaleko alprojen artean erregea. Lokartzen ari naiz, eta ezin dut protestarik egin, logura saihestu ezinik nabilelako. Biluzik nago zure altzoan, lokartzen ari naizen bitartean. Ezin dut saihestu. Begiak irekitzen saiatzen ari naiz, indarrez, ezinean; bilaketa alferrikakoa izan dela pentsatuz. Eta inutila izango da zure bila berriz bueltatzea. Negar malkotan ikusi zaitut begirada galduaz, masailak zikindu zaizkizu rimelaren beltzaz. Neure buruari, kontsola ezazu, esan diot, baina sakonegia da logura. Eta inutila izango da, dagoeneko kale kantoi horretan egongo ez zarelako. Baina berean jarraituko dut. Kafera gonbidatzeko. Inoiz piztutako zigarroak elkarbanatzeko. Otsailean edo beste edozein hilabetetan. Horregatik gogor besarkatu nahi zaitut, alde egin ez dezazun. Baina ihesi doaz indarrak. Sehaska- kanta abestu didazu. **Ikaragarria.** Non ikasi duzu abesti hori? Eskaileretan kantatu dudana. **Ikaragarria.** Begirada galdua. **Ikaragarria.** Ni itsu. Emakume perfektua. Logurak ez dit alde egiten uzten. Okerrena, eta badakit zuk dakizula, edo ez dakizula baina sumatzen duzula, edo biok dakigula baina ez genukeela horrela izatea nahi. Ezin zen beste modu batean izan, ordea. Idatzita omen dago dena mundu honetan. **Ikaragarria.** Odol eta bilisaren tintaz aurretik izkiriaturako zorigaiztoko bizitzak. Horregatik lokartu naiz eta badakit bihar ez zarela, hemen, nire ondoan egongo.

Hortik atera nahi zaitut kafe batera gonbidatzeko ondoko tabernan, zure sorbaldan negar egiteko. Betiko lagun onekin egiten den bezalaxe. Zure bizitza barruan sentitu dut, boteretsu, patu guztien indarraren jabe. Larrutan egin dugu, berehala lokar zaitezten. Ene altzoan. Lehenengo aldiz bailitzan begiratu dizut. Amets ilun batetik esnatuz. Ordura arte ikusi ez bazintudan bezala. Ene altzoan lokartzen ari zara, [ikaragarria](#), diot. Masailak malkoz beterik, pailazo erretiratuaren aurpegiaz. Ez. [Ikaragarria](#). Zer egin dut. Ezin da izan. Aingeru hau... arnasarik ezin dudala egin nabari dut, itotzen ari naizela lorategi marroi eta laranjan. Begi bertsuak, aurpegi berttua. Kaskezurrean iltzatu zait paretako gurutzea. Zer egin dut, zer egin dut. Nire txikia, esan dizut. Nire txikia, esan dizut, baina benetan esan nahi dudana, [ikaragarria](#), da, zer egin dut.

Lo egiten duzun bitartean jantzi ditut: galtzerdi urratuak, soineko hautsia, lurrean sakabanatutako bihotz puskak. Gau mahaitik grinaz tolestutako billeteak hartuz... banoa. Ezin dudalako utzi dirua, hor, hartu gabe, ezer gertatu izan ez balitz bezala egin behar dudalako, beste edozein lana izango balitz bezala. Ez dut gehiago sufritzerik nahi, nahikoa sufrituko zenuen jada; gauean, kale arriskutsu hauetan zehar noraezean ibiltzeko, polizia ustelak eta hiesdun txaperoak zailtasunez baztertuz. Beste bat besterik ez dela pentsatu behar du. Kanean firin-faran zebilen bezero bat besterik ez. Itotzen ari naiz paperezko lore pozoitsuen artean. Ene aingerua. [Ikaragarria](#). Ez dago esperantzarik. Galdutako semea da.

Ikaragarria. Abandonatu nuen semea. Atea lehenengora itxi dut. Errauts bihurtu dira poltsan sakabanatuta zeuden inoiz piztutako zigarroak. Urkatzeko ez dakit nahikoak izango diren nire hesteak, horretan saiatuko naiz, hala ere. Ez nazazu bila, arren, kale kantoian ez nauzu berriz topatuko eta. Bi zupada soilik eman ondoren, amorruez zapaldutako zigarrokin bat bezala hartu nau bizitzak.

BIAK.- Eta ez dugu elkarrekin zigarrorik erreko. Inoiz piztu ez diren zigarro ahaztuak. Inoiz piztu ez diren zigarroak. Hor geldirik, bizitzak eskainiko ez dien aukera berri baten zain. Norbaiten poltsikoan galdutako zigarro koitadu horiek bezala izango gara gu.